

OINARRIZKO KOMPETENTZIAK



Zehar kompetentzia ezberdinak garatzeko aukera ematen du?

ZEIN OINARRIZKO KOMPETENTZIAK GARATZEN DIRA, DISZIPLINARRAK ZEIN ZEHAR KOMPETENTZIAK? ELKARBIZITZARAKO KOMPETENTZIA GARATZEN DU? TALDEAN LANKIDETZAN IKASTEKO PROZEDURAK ETA JARRERAK KONTUAN HARTZEN DIRA?

AZKEN ATAZA / PRODUKTUA



Denek parte hartu ahal izango dute?

Ikasleen adierazpen modu ezberdinei aukera emango zaie?

ZER LORTU NAHI DUGU? ZEIN ERRONKA DAUKAGU? ZEIN PROBLEMARI EMAN NAHI DIOGU IRTENBIDEA? SORMENERAKO BIDEA EMATEN DU?

BALIABIDEAK



Aukeratutako baliabideek eskusio edo parte-hartze ezaren egoerak faboratu ditzakete?

Interes ezberdinei erantzuten dieten baliabideak aurreikusten dira?

ZEIN PERTSONA INPLIKATU BEHAR DIRA: IRAKASLEAK, FAMILIAK, BESTE ERAGILE BATZUK? ZEIN MATERIALAK IZANGO DA BEHARREZKOA? ZERBAIT BEREZIA BEHARKO DA?

JARDUERAK



Jardueren aurkezpen modu anitzak aurreikusi ditugu?

Jarraibideak garbi eta modu ezberdinetan ematen dira?

Zailtasun maila ezberdinetan lan egiteko aukera ematen dute?

Gaitasun ezberdinei egokitutako jarduerak diseinatu ditugu?

Beren diseinuan oztopo kognitibo, fisiko edo sentsorialak aurreikusi ditugu?

Jardueren iraupenean ikasleen arreta gaitasuna kontuan hartu da?

Ikasleen ikasteko estilo ezberdinak kontuan hartu ditugu?

Ikasleen interesei erantzuten dieten jarduerarik badago?

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzeko aukera ematen dute?

Ikasleei jarduerak proposatzeko aukera ematen zaie?

Lehenago bukatzen dutenentzat zer egin aurreikusita dago?

Ainguratzeko eta proiektatzeko jarduerak daude?

Meta-kogniziorako jarduerak diseinatu dira?

ZER EGIN BEHAR DUGU AZKEN PRODUKTUA / ERRONKA LORTZEKO?

EBALUAZIO LORPEN ADIERAZLEAK



Kontuan hartu ditugu ikasleen hasiera puntu ezberdinak?

Ikasleen esfortzua baloratzen da?

Lorpen maila ezberdinak aurreikusi ditugu?

BEREGANATU BEHAR DITUZTEN IKASKUNTZAK CURRICULUM OFIZIALAREN ZEIN LORPEN ADIERAZLEEKIN LOTZEN DITUGU?

EBALUAZIO MODUAK



Irisgarriak diren formatu ezberdinetan aurkeztu daitezke?

Ikasleen ikasteko forma ezberdinak ebaluatzen dituzte?

Feedback positiboa ematen da?

ZEIN TRESNA ETA ESTRATEGIA BERRITZAILE APLIKATUKO DITUGU? AUTO-EBALUAZIOA ETA KO-EBALUAZIOA EGINGO DA?

EGINDAKOAREN KOMUNIKAZIOA



Adierazpen eta komunikazio modu anitzak planteatu ditugu?

Aukeratutako bitartekoa denentzat baliagarria izango da?

NOLA EMANGO DUGU EZAGUTZERA GURE PROIEKTUA?

TIK TRESNAK



Aukeratu ditugun tresnak denek erabil ditzakete?

Parte-hartzea ahalbidetzen dute edo mugatzen dute?

ZEIN APLIKAZIO ETA TIK TRESNA BEHAR DITUGU? ZEIN WEB ZERBITZU ERABILIKO DITUGU? EGINBEHARREKOEKIN LOTU DITZAKEGU?

TALDEKATZEAK – ANTOLAKETA



Bat datoz ikasleen kompetentzia sozial ezberdinekin?

Malgutasuna dago ikasleen ezaugarriari eta beharrei egokitzeko?



Taldekatze ezberdinak egingo dira helburuen baitan?

Gelako antolaketa lan egiteko era ezberdinei egokitzen da?

Laguntza eskatzeko eta emateko modua landuko dugu?

Haien artean, ahots baxuan hitz egiten landuko dugu?

NOLA TALDEKATUKO DUGU IKASLERIA? NOLA ANTOLATUKO DUGU IKASGELA?

OZTOPOAK EZAUGARRIAK



KOGNITIBOAK



Mezu konplexuak ulertzeko, ikaskuntzak erlazionatzeko, abstrakziorako edota orokortzeko zailtasunak.

Gaitasun handiak, talentuak, erraztasuna. Errendimendu altua.

KOMUNIKATIBOAK



Ahozko edota idatzizko mezuak ulertzeko eta ikasleen artean komunikatzeko zailtasunak.

SOZIALAK



Gizarte-trebeziak eskuratu gabeak edo maila nahikoan garatu ez direnak. Emozioak adierazteko edota kudeatzeko zailtasunak. Kultura ezberdinen ohiturak eta moduak.

FISIKOAK EDO SENTSORIALAK



Aniztasun funtzionala. Hipersentikortasuna.



Sustituir – **Ordezkatu** oztopoak eta ikasleen ezaugarri ezberdinak kontuan hartzen ez dituzten proposamenak irisgarriagoak eta irekiagoak diren beste batzuekin, hau da, denen partaidetza eta ikaskuntza ahalbidetuko dutenekin.

Combinar - **Konbinatu** jarduerak aurkezteko modu ezberdinak, material eta baliabideen erabilera, ebaluaziorako tresnak, teknologiaren erabilera... ikasleek beren gaitasunei hoberen egokitzen zaizkien aukeratu ahal izateko.

Adaptar - **Egokitu**, ikasleen hasierako ebaluazioa eta bakoitzarengandik espero ditugun lorpenak abiapuntutzat hartuz.

Modificar / **Minimizar** / **Maximizar** – **Aldatu**, baliabide kognitibo, sozial, fisiko, sentsorial eta komunikatibo mugatuak dituzten ikasleak kanpoan uzteko aukerak gutxituz eta guztiek parte-hartzeko aukerak handituz.

Proponer otros usos - **Beste erabilera batzuk proposatu** hasiera batean diseinu itxia edo estandarra dituzten proposamen ezberdinetarako, alternatibak aurreikusi; ikuspuntu, interes eta emozio ezberdinetan kokatzeko pentsamendu dibergentea erabili. Guztien espektatibak proiektuan kontuan hartu.

Eliminar - **Kendu** denek benetako eta arrakastaz parte-hartzeko aukera ematen ez duten prozesuak. Oztopoak ekarriko dituztenak baztertu.

Reordenar – **Berrantolatu** prozesua urrats guztiak ondo diseinatuta egon daitezen, oztoporik gabe, aukerekin, baliabideekin, material anitzekin, maila anitzeko jarduerekin, denentzat irisgarriak diren aldaketekin.